

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3203

*217/2020 EBAZPENA, ekainaren 6koa, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez María José Sakara Magallón andrea kendu egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Andoaingo eta Tolosako Osasun Mentaleko zentroetako unitateburu kargutik, berak hala eskatuta.*

153/2017 Ebazpenaren bidez, María José Sakara Magallón andrea izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Andoaingo eta Tolosako osasun mentaleko zentroetako unitateburu (2017ko azaroaren 6ko EHAA 211. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María José Sakara Magallón andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Andoaingo eta Tolosako osasun mentaleko zentroetako unitateburu kargutik kentzea berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko ekainaren 14tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea eta haren berri ematea interesdunari eta Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2022ko ekainaren 6a.

Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,  
ALVARO IRUIN SANZ.